

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko maiatzaren 4a VI.urtea

Usurbil, 112. zenbakia

**Bost txalupa etorriko
dira Txokoaldera
maiatzaren 13an**

Txerrimunik ordainetan



Hiru printzesa eta hiru printzipe hauek laister batean egingo dute 22 urterako bidea, 79ko uda hura beroa izan baitzen nonbait eta erropa arinen aitzakian... guzti-guztia ere ez da esplikatu behar, dagoeneko seikote honek jakingo baititu hortik aurrerakoak, batzuk gutxiago eta besteak gehixago, hori ere egia da. Guk, behintzat, 1979ko uda beroaren aitzakian txanpana erruz edango dugu asteburuotan. Zer uste zenuten ba, libratuko zinetela, ala? Gainera, dagoeneko denbora izan duzue gutxi edanarekin konformatzen direnak asko ez daudela konturatzen. Zorionak **Xabier, Anartz, Saioa, Andoni, Aitziber eta Izaro**, hurrenez hurren zaharretik gaztera. Zorionak eta muxu bat xudur punttan zuen kontura edango duten horien partez, horiek al dira lagunak?



Non gelditu ote dira mutil gazte hauek? Auskalo! Orain zahar aurpegi haundiago dutela esango banu ez ginatete oker egongo. **Karlosek** 29 urte beteko ditu maiatzaren 19an eta **Ibon, Manu eta Josuk** 27 urte maiatzaren 8, 12 eta 15ean. Ez al zenuten ba 27 urte bete baino lehen ezkondu behar? Berriz ere M.Zko partaide izango ez zarete ba? Zorionak laukote, eta hasi poltsikotik dirua ateratzen.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota fituluren bat lortu delako dohainik, bazkide direnak nahiz ez direnak tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea:
maiatzaren 18an
Ekartzeko azken eguna:
maiatzaren 11a

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartearen badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskuitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noauan argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskuitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Maizta						
Astel.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igan.	
1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40**	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Orioraino **Aiaraino
 Asteburutan Asteburutan

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzaintza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 112
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.jalgi.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

**Selektibitatea****Aloña Pulido**

Batxilergoko ikaslea

Selektibitatearekin geroz eta kezkatuago edo beldurtuago nago. Batxilergoan denbora guztian selektibitateari begira ari gara lanean, ikasturte osoan nota onak ateratzen saiatzen gara gero ahalik eta batzbesteko onena izateko. Hala ere beldur handia dut: selektibitatea egitera joatean egun txarra tokatzen bazait zer? Nire ustez nahikoa izan beharko luke batxilergoko notarekin, ez baitzait batere logikoa iruditzen bi urtetako lana gero lau egunetan berriz egitea.

Egia esan horrela utziko balute konforme egon beharko genuke, zer erremedio! Baina lege berri bat sartu nahi dutela ere entzun dut. Orain arte batxilergoko notaren eta selektibitateko artean batzbesteko bat ateratzen zen, bakoitzak %50eko balioa zuen. Lege berri honekin, ordea, batxilergoaren nota %60a izango litzaiteke eta selektibitatearena %40a. Egia esan aldaketa hau hobea edo txarragoa den ez dakit. Noski, positiboagoa da batxilergoaren notak portzentai handiagoga izatea, baina hala ere selektibitatea hor egongo da eta bi urtetan egindako lana 3-4 egunetan jokatu beharko genuke. Beste arrazoi batengatik ere positiboa iruditzen zait, izan ere amak esan izan dit bere garaietan askoz okerragoa zela, bi edo hiru selektibitate pasa behar izaten baitzituzten unibertsitateko ikasketak bukatu aurretik.

Badakit niri selektibitateari ez egotea ez zaidala tokatuko, baina poza emango lidake egunen batean kenduko dutela entzungo banu. Hala ere ez lukete dena hain erraz utziko, beste erreforma arraroren bat egingo lukete, ezer onik ez.

Oraingo erreforma honekin notak hamarrenekin puntuatuko dituztela ere esan dute eta hori hobea izan daitekeela iruditzen zait. Horrez gain, lehenengo zuzenketarekin ados egonez eta azterketa berrikus-teko aukera izango dela ere esan dute.

Nik ez dakit lege berri hau ezagutuko dudan. 2003rako jarriko dutela esan dute eta hala bada ez dut ezagutuko. Hala ere, bata edo bestea egin beharko dut, eta horretarako ari naiz lanean. Selektibitatea iritsi aurreko bi hilabeteak izango dira okerrenak, hori iruditzen zait behintzat. Jendea lanez lepo ibiltzen da batxilergoa bukatzen eta selektibitatea prestatzen. Nik ez dakit nola egingo dudan, baina nahikoa kafe hartu beharko dut gauean lorik ez hartzeko.

Orain batxilergoa egiten ari banaiz ere selektibitatea oso gertu ikusten dut, maisuek etengabe aipatzen baitute selektibitatea. Beti esaten digute oraingo lan guztia ondo prestatzeko, gero selektibitatean sartzen baita.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Azala:

Oria ibaia Txokoaldeko zubitik begiratuta

Luis Mari Ormaetxeari erantzunez

Zure idatzia irakurri ondoren, gogoeta batzuk egitea egokia iruditu zait:

1. Gaurko autogobernu, aber-tzaletasun eta bizitza maila ez direla ETari esker lortu pentsatze-ko eskubide osoa duzu, baina ondorio lazgarri guztien gainetik, ETaren borroka eta emankortasuna izan ez balitz aspalditxo gure-ak egin zuela pentsatzen duen Euskal Herriko herritar asko (usurbildar asko tartean) ere badaude. Euskal Herria herri zanpatua, iraindua eta gutxitua zen garaian, egun oinordekoak zaren alderdi eta indar haiek betirako burumakur geratzeko zorian zirela, ETak herri izateko nahia piztu eta gure gizartean herri duintasuna berreskuratzea ahalbidetu zuela egiazki pentsatzen duen jendea, alegia. Gustukoa izan ala ez, rol historiko izugarria izan duen (eta duen) eragile politikoa da ETA eta hori egiaztatze-ko nahikoa da behin baino gehiagotan gobernu ezberdinak berarekin mahairatu izan direla ikustea eta ez, noski, musean jokatze-ko.

2. Zure hitzak irakurrita, gaur egun modan jarria dagoen sinplekerian edo arinkerian erori zarela dirudi. Aspalditik, tamalez denbora gehiegiz, jasaten dugun gatazkaren muina estali eta guztiaren errua ETaren existentziari eta jarduerari leporatzen diozu, horretarako umekeriazko argudioak erabiliz (ETA ez da abertzalea, ez progresista, autodeterminazio eskubidearen aurka dago eta abar). PPK erabiltzen dituen argudio berberak. Gogorazi nahi nizuke azken aro honetan ETA izan dela Euskal Herriari hitza eman behar zaiola

errebindikatu duena behin eta berriro (1995ean eskaini zuen Alternatiba Demokratikoan hitzez hitz jasota dago), orain batzuen (EAJ, EA) asmakizuna izan balitz bezala erabiltzen baduzue ere.

3. Ezagun horrek esandakoak sutan jarri omen zintuen. Begi bistakoa da zure erreakzioa ikusita. Sutan jartzeko arrazoiak soberan dauzkagu, ordea: hilketak (alde guztietakoak), torturak, preso- eskubideen etengabeko bortxaketa, iheslari ugari munduan zehar (eta ez bakarrik azken urtebetean izandako hamarnaka batzuk), gure hizkuntzaren kontrako erasoa, neoliberalismo basatiaren ondorioz langile askoren egoera ezgizatiarra, gazterien esplotazioa, ideia politikoen jazarpena... Hau guztiaren aurrean, nonbait, temperatura ez zaizu horrenbeste igotzen, ez baitugu tamainako erreakziorik ikusi.

4. ETaren indarkeria amaitzeko, era egokiagoan esanda, gatazka politikoa beste parametrotan, parametro demokratikotan kokatzeko bidea zein den ondo daki aspalditik gure herriaren gehien-goak. Bide hori jorratu egin behar da eta bereziki politikoei dago-ekin egin beharra da. Herritarrek heldutasun gehiago exijitzen dute eta erabiltzen dituzun argudioak ez doaz, inondik inora, konponbidearen haritik. Aitzitik, faxistak, ez abertzaleak, koldarrak edo antzeko deskalifikazio hutsa-letan eroriz, arazoaren benetako muintari heltzeko borondate eza agertzeaz gain, zapuztutako poli- tiko kaxkarren irudia ematen duzu. Eta horrelakoak, zoritxarrez, alde hemendik esateko moduko-ak dira.

Juanjo Olaizola

Belar bolak egiteko aukera

Behemendi Nekazaritza Elkar- teak belar bolak siloratzeko zer- bitzua martxan jarri du Usurbilen. Herriko baserritarrek eskatuta Donostian eta Astigarragan lehendik ere eskaintzen zen zer- bitzu honetaz baliatzeko aukera izango dute hemendik aurrera belarra boletan bildu eta plastifi- katu nahi duten guztiek.

Horretarako behar beharrezkoa den makinaria erosi dute dago- eneko eta dena ondo joan dadin baldintza batzuk jarri dira.

Prezioei dagokionez, orduko diru kopuru zehatz hauek ordain- du beharko dituzte baserritarrek:

- Enpaketatzaille biribilgailua 4.250 pezeta.

- Xingolaztatze makina 4.250 pezeta.

- Segamakina 6.000 pezeta.

Horrez gain, belar bola ba- koitzeko 650 pezeta (plastikoa, soka eta mantenua) ordaindu beharko dira. Ordainketa guztiak lana bukatzean eman beharko zaizkio lanean aritu den makinis- tari.

Prestakuntza aldetik, makinista lan lekura iristerako belarra moz- tuta eduki beharko du baserri- rarak. Leku horretara iristen den momentutik bukatzen duen arte- ko denbora kontuan hartuko da kobratzerakoan eta gutxienez bi orduko lana izan beharko du. Horregatik, aurrez 608 773657 telefonora deitu (Julen Lizeaga) beharko da zerbitzuaren eskaera egin ahal izateko.

ERRAZKIN

Igeltseritza orokorra

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santuenea Mob: 629 42 05 65



WITZANGA

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



Pinturas Ion



943 83 09 37 ☎ 670 397504

TXOKOALDE

Eguraldiaren baitan

Iñaki Labaka



Aste Santua pasa ondoren eguraldi nahiko traketsa izan dugu, gehienetan euria nagusituz. Joan den astean, berriz, eguzkia agertu zen eta aukera hori ez galdu arren, mugimendu handia izan zen auzoko erriberan.

Aurretik lurrak goldetuak eta puntu-puntu zizuzten baserritarrek babarruna eta artoa ereiteko aprobeztatu zuten. Gainontzekoak, lurrak goldetzen eta landatzeko prestatzen jardun zuten. Baina gero osteratxarrera egin duenez, bat baino gehiago erein gabe gelditu da egun aproposagoak etorriko direlakoan.

Bestalde, orain arte Aginagal-

dean ez bezala, gure erriberetan piperra ez baldin bada asko landu, aipatzekoa da aurtan hiru sailetan piper asko landatu dutela, gero komertzializatzeke asmoz. Entzun dudanez, lana egiteko atzeritar talde bat etorri da. Udar nahiko lan izango dute piper horiek guztiak biltzen. A ze gerritako mina!

Bukatzeko, Erroizpe Elkartearen martxoan burututako Batzar Orokorrean, nabarmentzeko kontu aipagarriena Juan Mari Bordak, lehendakari bezala hainbat urte igaro ondoren, bere kargua uztea erabaki zuela da. Zuzendaritza Batzordean kide berri bat sartu zen

eta bertako kideek lehendakari berria izendatu ez dutenez, taldea arduratuko da aurrerantzean elkarrearen kudeaketaz.



KALEBERRI

Kontuak soberan

Ines Kamino



Maiatza eta festa usaina iristearekin bat, kaxko inguruko mugimenduak ere nabarmen egin du gora. Joan den asteburuan, esaterako, martxa ederra izan zen frontoi inguruan, UGAk antolatutako futbito txapelketa medio.

Giro benetan ederra sortzen da txapelketa honen inguruan, arratsalde partean, gaztetxoe-

nen partidak izaten direnez, guraso ugari inguratzen da plazara. Gauvaldera, berriz, zaharrenek partidak ikusmira handia sortzen dute, batzuetan, futbol partidak baino boxeo saioak diruditen arren. Hau ere gustuko du ikusleak, saltsa dagoen tokian... badakizue.

Nahikoa mugimendu ez bazen, igandean Erle Eguna izan zen. Jende ezagun ugari ikusi ahal izan genuen herriko pilotalekuan, sukaldariak, Goenkaleko aktoreak, telebista aurkezleak... kanpoko bisitari ugari ere izan genituen, guztiak erle gozoaz dastatzeko asmoz.

Dema plazan zen azokan, berriz, gauza kurioso ugari ikusi eta erosi ahal izan genituen, eztiak gain hamaika lan egiten baititu erleak. Euskal Herriko lehenengo Ezti Txapelketa ere izan zen eta sarietako bat Julian Urkiola usurbildarrarentzat izan zen.

Amaieran, ezti irabazleak Karlos Argiñanok eramane zituen etxera 210.000 pezetaren truke. Erraz mintzatzen ziren kopuru hauen inguruan sukaldari famatuak, hortxe aritu ziren zein edo zein harroago. Azkenean Argiñano garaille.

Asteburu honetan ere ez da festarik faltako, Andatza Egunetik bueltan jende ugari bilduko baita festa guztien testigu fidela den gure kaxkoan.



KALEZAR

Ainara Uribe



Hurtzaindegia izango dugu laister

Oraingoan nire kontuen ardatz izango da gure auzoko Udarregi zaharra, garai batean, ez hain urruti, gure lehenengo negarren testigu izan zena.

Udalak jakinarazi duenez, datorren ikasturteik aurrera hurtzaindegia izango da bertako beheko solairuan eta lehenengo pisuko zati batean. Auzotarren zorionerako berriz ere haur soinua izango dugu auzoan. Zerbitzu hau lau hila-betetik hiru urterako haurrentzako zuzendua izango da. Benetan beharrezkoa zuen halako zerbait herriak, ikastolara joan bitartean arazo izan baitaiteke gurasoentzat etxeko

txikia non utzi. Ea hurtzaindegia aitzakian Usurbilgo populazioak gora egiten duen.

Baina beste zerbitzurik ere eskainiko du Udarregi ikastola zenak. Entzun dudanez udalak zaharrentzako eguneko zentru bat ezarri nahi du bertan. Tokia, behintzat, benetan egokia da zaharrentzat zein txiki-entzat, lasaia, patio zabalarekin eta eguzkitsua.

Hau guztia betez gero, belaunaldi ugari bilduko ditu aipatutako eraikuntzak, txikiak, adinduenak eta tartean tartean bilerak egiten dituzten auzoko gazteak. Eta auzoko gazteak aipatu ditudanez, aprobe txatu beharra daukat

mezutxo bat bidaltzeko. San Juan ere ez dagoela hain urruti eta garaia da sua prestatzen hasteko. Ea hurrengoan gure suaren inguruko kontuak aipatzeko moduan naizen!.



ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Nikasio eta Joakinaren maitasun istorioa

Benetan berezia den auzokide berria dugu Atxegalden, Nikasio. Ikusi, kasik inork ez du ikusi (neroni horretan pribilegiatua naiz, alboko bizilaguna baitut eta pertsonalki ezagutzeko aukera izan baitut), baina entzun... besterik ez da entzuten azken egunotan Atxegalden.

Izan ere, ez da ixilik egotekoa gure Nikasio. Gure etxean astearte gauean ezagutu genuen bizilagun berria, balkoira atera eta txistu eta txistu zebilen norbait, neska gazteei zuzenduriko txistuak ziren nagusiki. Hasieran txantxa modura ere hartu genuen eta barrez aritu ginen gustura. Txistuen ondoren mezu bakarra zetorren beti; Nikasio,

Joakina, Nikasio, Joakina... Zer ote da?

Kuriositatea etsai, alboko bizilagunaren intimitatearen aurkako eraso egin nuela onartu behar dut, aulkia hartu, lepoa luze-luze jarri eta alboko bizilagun xelebrea ikusi nahirik begiratu nuen paretan bestaldera. Eta orduan ezagutu nuen gero oso maite bihurtu den laguna, Nikasio. Hantxe zegoen, beltz-beltza, txiki-txikia, eta moko hori-horiz, kaiola batean sartuta. Nire presentzia atzetan eta beldurtu ere egin zen, salto batean jarri bainuen txori gaixoa. Neroni ere ez nintzen txukun ibili eta aulkia hankazgora ia balkoitik bestaldera erori nintzen.

Nikasiok ba omen zuen duela gutxi arte kaiola laguna, Joakina. Hark asko hitz egiten zekielako kontatu zigun jabeak, euskaraz ere txukun aritzen zen eta egunonak ematen iaioa omen zen Joakina. Hil egin zen, ordea, eta orduztik Nikasio lagun galduaren penetan dabil, Joakina gora eta Joakina behera. Eguerdiro gazte mordoak biltzen da gure etxe aurrean, Nikasiorekin hitz egin nahian edo. Guztiek ere barre gustura egiten dute txori hitzuren kontura. Gurean ere ez da txantxarik falta Nikasioren kontu. Bakarrik eta aspertuta zaudela? balkoira atera eta ez zaizu solaslagunik faltako. Aupa Nikasio, eta ongietorri!

SANTUENEA

Gurea zain dezagun

Alfontso Vidal



Kazetari lanetan aritzea latza da Santuenean. Apenas izaten da zer kontatua eta berria dagoenean beti beste kronista bat aurreratzen zaio makalago dabilen horri, hauxe da nire kasua.

Oraingoan ere banuen zer kontatu eta ttaka! Agurtzane aurreratu zitzaidan aspaldi gainera. Opor garaiak izan ditugunez, gainera, gertatutakoaz ere ez dakigu ezer asko, ez naiz gezurretan arituko. Lanetik etxerako bidean lotoki soila bihurtzen da askotan auzoa eta libre antzera gabiltzanean, berriz, herrirako joera izan ohi dugu.

Hau da hau komeria! Eguraldi onak ere hasi zitzaizkigun eta jende ugari animatu zen, Zubietako buelta bidean, gure auzotik pasatzera. Azkenaldian, ordea, hotza nagusi da eta horrek ere ez du laguntzen. Izan ere, eguzkia behar du jendeak etxetik ateratzeko, karkola oskoletik nola, ba halaxe!

Gautxori antzera gabiltzanok maiz ez dugu beroaz gozatze-ko aukera handirik, gauak, oraindik orain freskoak baitira. Hala ere, beste gazte askok ez bezala, guk zertxobait zaintzen dugu auzoa. Ibai Ondo elkarte-ko afarien aitzakian, ordu batzuk ematen baititugu auzo-

ko txoko honetan, ez nahikoak, hori bai. Halako joerarik. Beti handiago horren nahian gabiltza, Santueneatik Usurbila eta Usurbildik auskalo nora, dena txiki egiten zaigu, txiki edo eza-gunegi, agian. Datorren igandean ere jaia izango dugu herrian, Andatza eguna dela eta. Herri Urrats jaiarekin lehia-tzeko aukera gutxi du, ordea, gure mendiaren egunak. Ikusi egin behar herritarrek nola erantzuten duten.

Nik, behintzat, tarte hau alferrik bete aurretik, aprobetxatu eta guztiak animatzen zaituztet fontorrera, gurea dena, txikia izan arren, zain dezagun.

URDAIAGA

Iritsi da maiatza

Alazne Begiristain



Behin baino gehiagotan entzun behar izaten dut beti berdina idazten dugula, parkea ez bada eguraldia dela edo bestela ermitako kontuak direla. Neurri haundi batean arrazoia du hau esaten duenak, baina ez da lan erreza hamabostero tartexto hau betetzea.

Beti ibiltzen gara albisteren bat harrapatu nahian handik eta hemendik, baina gurea bezalako auzo batean zaila da hau. Lehengo batean, hiruzpailau aste edo, anaia etorri zitzaidan ermitako kanpaia falta zela esanez. "Ederki, oraingoan badut zer idatzirik", pentsatu

nuen. Baina, aurreko alea hartu eta Josebak aurre hartu zidala ikusi nuen. "Nereak egin du!", pentsatu nuen. Honela ibili beharra ere!

Buruari bueltaka hasi naiz eta, hara! Maizatza iritsi da! Urtero legez, maizatzen lehene-ngo igandean Andatza eguna ospatuko da. Aurten, ordea, egun berean Herri Urrats ere izango da eta nik ez dakit jendeak norako

joera izango duen, Senpere alderako edo gure herriko mendi xume honetarakoa.

Hala eta guztiz ere, festa giro ederra izango da Senpere aldean, baita Andatzen ere!



AGINAGA

Zaharrak gazte

Zestoa, Azkoitia, Zumaia, Zarautz, Orio, Aginaga eta Usurbilgo beste bi zahar elkarte bildu ziren joan den apirilaren



30an Aginagako Arrate egoitzako jokuetako finalak jokatzera. Bertan 70 lagun bildu ziren nor baino nor tutean, puntuan,

musean, seiko urrean, bilarrean eta igelaren jokuan lehiatuz gazte denborak gogoratu eta askotan gaztetako markak ere hobetuz.

Tutean, musean eta igelaren jokoa zumaiarrak izan ziren nagusi (ondo entrenatuak nonbait), puntuan eta seiko urrean zestoarrak eta bilarrean, berriz,

Oskar Santamaria



zarauztarrak. Ondorioz, konturaturako zineten bezala, ez zen saririk gelditu herrian. Derrigor animatu behar herriko zahar egoitzetako kideak gehiago entrenatzera, badakizue denbora zertan pasatu!

Bestalde, urtea aurrera doan heinean, San Praixkuak ere gertutzen ari zaizkigu eta, oraindik bilerarik izan ez bada ere, hil honen bukaerarako hasi beharra dago lanean. Beraz, Aginagako gazte nahiz ez hain gazte diren guztiak bertan ikusi nahi ditut, festetan disfrutatu bakarrik ez, hauek antolatzen ere lan pixka bat egin beharra dago eta!

ZUBIETA

Xabier Arregi



Andatza Eguna eta udarako haurren jolas-txokoak

Datorren maiatzaren 6an Dekitaldi ugari dago bazterretan: Herri-urrats, errebote partiduak, Andatza eguna,... Ez da samurra izango aukera egitea; baina Andatzara joatea

erabakitzen duenari eskaintza bat egin nahi diogu.

Plana honako hau da: Zubietako plazatik goizeko 8:30etan abiatu eta Zubietamendian

barrena Andatzara igotzea. Bidean Arkutxa, Olaiko eta Juanasoroko trikuharriak non dauden ikusiko dugu.

Hamaiketarako Andatzako ton-torrean egongo gara (iritsiko ahal gara!), mokaduren bat jan eta tra-

goxka bat egiteko aldarte ederrean.

Udarari begira beste egitasmo baten berri zabaldu nahi dugu.

Aurten ere Herri-eskolako gurasoen elkarteak eta Herri-Batzarrak udarako haurren txokoak antolatzeko asmoa dute. Oraindik ez dira zer-nolakoak zehaztu, baina Zubietako eta inguruko gurasoei asmo honen berri eman nahi zaizkie garaiz, udaran zer egin pentsatzeko.

Dakiguna da, hori bai, txokoak uztail eta abuztuan izango direla goizez. Laster izango duzue xehetasun gehiagoren berri.



Hilerri berriaren inaugurazioa izango da maiatzaren 19an

Hilerri berria datorren maiatzaren 19an inauguratuko da. Bertako lanak amaitu zituztenetik hila-bete batzuk pasa dira, baina ekaina aldera erabiltzen hasi beharko dutela aurreikusten denez udaleko ordezkariak ekitaldi txiki bat egitea erabaki dute. Horrez gain, hilerri berriko hilobien panteoien eskubideak esleitzeko bete beharreko baldintzak zeintzuk izango diren zehaztuta daude.

Hildakoak hilerri berrian hilobiratuko dituzte laster. Hilerri zaharrean zortzi nitxo inguru daude hutsik, eta hauek betetzearan hilerri berrian lurperatuko dituzte hildako herritarrak. Hau ikusita, maiatzaren 19an inaugurazio ekitaldi txiki bat egitea erabaki du udalak. Eguerdiko 12.30etan hasita arkitektoak proiektuaren nondik norakoak azalduko ditu. Ondoren hilerri berria bedekinatuko da eta ekitaldia amaitzeko herriko alkateak hartuko du hitza. Ondoren hamaiketa-



ko txiki bat egingo da hilerrian bertan.

Bestalde, udalak hilerri berriko panteoiak esleitzeko bete beharreko baldintzak onartu ditu dagoeneko. Udala da hilobion jabea eta panteoiak erabiltzeko eskubidea erosi nahi duten guztiak gehienez 50 urteko erabilpena eman ahal izango diote beraiek aukeratutako panteoi motari. Sei panteoi mota aukeratu ahal izango dira:

- Banako hilobia, sei hilobiko

panteoian.

- Biko hilobia, sei hilobiko panteoian.

- Hiruko hilobia, sei hilobiko panteoian.

- Lauko hilobia, sei hilobiko panteoian.

- Bosteko hilobia, sei hilobiko panteoian.

- Seiko hilobia.

Horretarako bete beharreko lege, ekonomi eta administrazio baldintzak udalean bertan eskuratu ditzazkeue.

2000. urteko aurrekontuaren likidazioa eta kitapena onartu du udalak

2000. urtean 1.341.459.408 pezetako aurrekontua izan zuen udalak. Urte hasierarako 1.140.607.819 pezetako aurrekontua onartu zen, baina urtean zehar egindako kreditu aldaketan bidez 200 milioi inguru igo zen aurrekontua.

Udaleko kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera gastuen aurrekontua bat az bestea oso ondo bete da. Personal gastuetan, haserako aurrekontuak egoki jaso ditu gastuak, benetakoak aurreikusitakoaren %97ra iritsiz. Ohiko gastuetan ere antzeko ehune-

koa lortu da. Inbertsiei dagokionez, haseran 669 milioi pezeta aurreikusi baziren ere 280 milioi pezetako inbertsioa egin zen 2000. urtean. Izan ere, Atalluko lurak ez dira oraindik eskuratu, desjabetza-aren bidean baitira, eta horretarako 369 milioi pezeta aurreikusi zituzten.

Sarrerei dagokionez, zuzeneko zergen emaitza oso ona izan da txosten honen arabera, aurreikusitakoa baino %16,3 gehiago jaso baitu udalak. Zeharkako zergetan ere antzeko zerbait gertatu da. 60 milioi

pezeta jasotzea aurreikusi zuten, eta 101 milioi eskuratu zituen udalak 2000. urtean zeharkako zergen bidez. Hala ere, kapital transferentzien bidez 370 milioi pezeta jasotzea espero zen, baina Atalluko lurren desjabetza gauzatu ez denez ez da pezeta bat bera ere jaso.

Beraz, iazko ekitaldia likidatzean altxortegi-gerakin likidoa 118.892.335 pezetako izan zen, eta hemendik ordaintzen ari dira urte bukaeran lanak hasi eta oraindik martxan dauden zenbait inbertsio.

Zergak ordaintzen hasteko garaia iritsi da

2001. urtean Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean kobratuko da. Salbuespen gisa, uztailaren 2 arte luzatzen da, ekainaren 30a larunbata izanik zenbait banketxe itxita egongo baitira. Zerga honen ordainketa helbideratuta duten pertsonen, berriz, 2001eko ekainaren 8an kobratuko zaie eta helbideratu gabe dutenei adierazitako helbidera bidaliko zaie maiatzean.

Herritar guztiei jakinarazten zaie maiatzaren 15etik uztailaren 2ra bitarteko lanegunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dutela, borondatezko epean, Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezinaren Zerga. Apirilak 23a baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kuxatik kobratuko dira zuzenean ekainaren 8an. Helbideratu gabeak eta gainerako ordainagiriak, ordea, zergadunak adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira maiatzean, gero Kutxa, Euskadiko Kutxa, Gipuzcoano banketxean edo udaletxeko zerga bilketa bulegoan

ordaindu beharko dute.

Era berean, zergadunek helbideratu gabe dituzten ordainagiriak helbideratzeko aukera izango dute udaletxean, Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Gipuzcoano Banketxean 2001. urteko ordainagiria ordaintzera doazenean agindua emanik.

Egunero goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izando ditu, igandetan eta jaiegunetan izan ezik Usurbilgo zergabilketa bulegoan.

Ekainaren 20a iritsi eta zergadunak ordainagiria ez badu etxean jaso, Usurbilgo udaletxeko zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du borondatezko epea amaitu baino lehen.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Gipuzcoako Ogasun Foralak premiamendu bidezko jardunbideari ekingo dio besterik gabe, eta ordaindu ez dutenek %20ko gainkarga, berandutze interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituzte bere gain.

Motzean

□ Apirilaren 27an egin zen ezohiko udalbatzan aurtengo irailaren 1ean martxan jarri eta uztailaren amaiera arte irekita egongo den Udal Hour Eskolaren inguruko zenbait xehetasun ezagutzera eman zituzten. Goizeko 7.30etatik arratsaldeko 19.00ak arte irekita egongo da, eta prezioei dagokionez usurbildarrentzat bi prezio ezberdin ezarri dira:

- Egun osoa: hileko 36.000 pezeta.

- Egun erdia: hileko 15.000 pezeta + 9.000 pezeta janariarengatik.

Bestalde, zerbitzu publiko hau kudeatzeko lehiaketa irekia martxan jartzea anartu zuten herriko ordezkariak. Aurrekontu-oinarria 7.000.000 milioi pezetakoa izango da eta kontratuak urtebeteko iraupena izango du. Lehiaketaren oinarriak, betebeharreko baldintzak eta klausula guztiak udaleko idazkaritzan eskatu ditzazkezu eta proposamenak aurkezteko epea ekainaren hasieran bukatuko da.

□ Udalak enplegu sustapeneko teknikari lanpostua bete nahi du aldi baterako. Lantzaio osoa izango du eta hautaketa lehiaketa bidez egingo da. Eskerak udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko dira maiatzaren 15a baino lehen.

Kale Nagusia USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15

KALITATERA
**EUSKAL
OKELA**



Behoko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

**FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK**

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

LABE-GOXO
OSTIAZGIA 2002-2010

Txokoaldeko zubi ingurua ibai-portu bihurtuko da maiatzaren 13an

Datorren maiatzaren 10, 11, 12 eta 13an Albalola elkarteak, euskal itsasertza dinamizatzeko asmotan, zenbait unzi tradizionalen itsas-ibaletako ekitaldi bat antolatu du, "Hiru ibai rallye-a" hain zuzen ere. Bost unzi ezberdin Urumea eta Oria ibaian gora igoko dira. Maiatzaren 13an, arratsaldeko 19.30ak aldera Txokoaldeko zubi ingurua ibai-portua bihurtuko da garai batean bezala.

Gaur egun Errenteria, Hernani, Astigarraga eta Usurbil bezalako herriak lotzen dituen ibai-zeharkaldi bat antolatzeak, gutxienez harridura eragin dezake; baina udalerrri hauek garai batean merkataritza portu bizi-biziak ziren, eta bertan ugariak ziren unziolak, errementariak, errotak eta marinel tabernak.

Oria ibaian, adibidez, txalupak etengabe erabiltzen ziren garai batean. Zubi gutxi zeuden eta ibaiaren bi aldean arteko lotura bakarra txalupen bidezkoa izaten zen Orio, Aginaga, Usurbil eta baita Zubietan ere. Honela, ibai ertzetan nonnahi aurki zitezkeen portuak. Aita Larramendik XVIII. mendean txalupak Andoain parera ere iristen zirela baieztatu zuen bere idatzietako batean. Hala ere, sakontasun gutxiko unziak, gabarrak eta alak bakarrik ibili zitezkeen Usurbil inguruko uretan.



Ibaian zehar "hondoizka" ibiltzen zen batez ere, hau da, pertika luze baten bidez ibai azpiko lurraz baliatuz ontzia bultzatzen zuten. Untziek azpi laua zuten eta sakontasun txikikoak ziren. Eskifaia, berriz, gizon batek edo bik osatzen zuten. Ur sakoneko aldeetan arraunak ere erabiltzen ziren.

Sakontasun txikia zuten txalupak ibiltzen ibaian

Txalupazaleek, erremintak, egurra, sagarra, sagardoa, gatzelatik ekarritako garia edo

artilea, etabar. ekartzen zituzten barnekaldetik kostalderaino; itzuleran burdin-mea, balekoipea, oihalak edo garia eramaten zituzten. Zura ere garratzen zuten; behin mendian moztuta lehortzen uzten zen, uholde garai arte. Orduan ibaira botatzen zituzten, korronteak eramane zituzten. Beherago, gizon talde batek sarek edo sokaz ateratzen zituzten.

1596 urtetik 1852ra bitartean Tolosaraino nabigagarri egin nahi izan zuten Oria ibaia. Eremu horretan garapen industrialak haunditzen zihoan eta proiektu bat baino gehiago aurkeztu ziren. Hala ere, oztopo ugari gainditu behar zituzten eta azkenean ezinezkoa izan zen egitasmo hau aurrera ateratzea.

Oria ibaia lehengo egoerara bueltatzen ari da

Urteetan zehar, eta faktore sozio-ekonomiko ezberdinak direla medio, ekintza hauek gutxitzen joan ziren pixkanaka-pixkanaka, erabat desagertu arte. Nekazaritza eta hiri-hedapenarekin loturiko ur-bideraketa ugariak eragindako sedimentazioak nabarmen aldatu zuen Oria ibaiaren egi-



tura, sakonera urrituz eta ondorioz nabigagarritasuna ere bai.

XX.mendeko bigarren zatiko industria-garapenak areagotu egin zuen ibaiaren degradazioa, eta hondakin bidean egon da urte askotan. Hala ere, azkeneko hamarkadetan ingurune-kontzientzia handituz joan den heinean, Oria ibaia lehengo egoera itzultzen ari da pixkanaka-pixkanaka.

Honen erakusgarri dugu Albaola elkarteak antolatu duen Hiru ibai rallye-a. . Bost unti ezberdin Urumeako urretan ibiliko dira maiatzaren 10 eta 11ean eta hurrengo bi egunetan Oria ibaian gora joango dira maiatzaren 13an arratsaldeko 19.30ak aldera



Txokoaldeko zubi pareraino iristeko. Gaur egungo unti gehienak motorren bidez ibiltzen dira aurrera eta atzera, Txokoaldeko zubi pareraino etorriko diren untiak, ordea, arraunlarien indarra besterik ez dute izango. Aginaga paretik

pasako dira 19.00ak inguruan eta Txokoaldeko zubi inguruan harrera beroa egingo zaie bost unti hauei. Etxeferoak bota, arraunlarietara ogitartekoren bat eman eta bertara gerturatu diren guztietan nahikoa sagardo izango da.

Hiru ibai rallye-an izango diren bost untiak

Ameriketatik

XIX. mendeko arrantza-traineru baten erreplika.

1998. urtean Estatu Batuetan eraikia euskal diasporaren laguntzaz.

13 tripulatazaile.

11,5 metroko luzera



Haizemari

Batela.

2 tripulatazaile.

5 metroko luzera.

Magoa

Azpeitian eraikitako ala.

Gabarra.

2 tripulatazaile.

4,8 metroko luzera.

Mañana

Dorma galiziarra.

2 tripulatazaile

5 metroko luzera

XV. mendeko txalupa

Pasaia Euskal Odisearen parke ludiko-kulturalaren ontzi tradizionalen ikerketa eta eraikuntza zentroan (Ontziola) eraikitako ontzia.

13 tripulatazaile.

11,5 metroko luzera.



Usurbil eta Urdiñarbe: bost urtetan eten ez den lokarria luzatu nahian

Usurbil eta Urdiñarberen arteko loturak ez du aurten ere etenik izango. Aitzaga Elkarteak duela bost urte ekin zion bideari jarraituz, maiatzaren 18an nazioarte mailako kontzertua izango da Oiaro Kiroldegian. Eta ez hori bakarrik, Zumarte musika eskolakoak ere tartean izango dira eta Zumarte haur abesbatzak kontzertu bat eskainiko du maiatzaren 19an Urdiñarbeko elizan.

Bost urte pasa dira Aitzaga Elkarte eta Urdiñarbeko Biltxoko Kultur Elkarte harremanetan jarri zirenetik. Elkarte honek Urdiñarbeko musika eguna antolatzen du eta lotura horren bitartez egun horretan parte hartzen zuen irlandar talde bat Usurbila ekarri zuten 1997an. Azken bi urtetan ere antzeko kontzertuak antolatu ditu Aitzaga elkarteak eta aurten ere ez dute hutsik egin.

Maiatzaren 18an Liongo hiru neska gaztez osatutako Maezah taldearen musikaz gozatzeko aukera izango da Oiaro kiroldegian gaueko 22.00etatik aurrera. Hala ere, hauek ez dira bakarrik arituko, hauekin batera Zumarteko haur abesbatza eta Tolosako orkestra izango baitira oholtza gainean.

Orain arte Aitzaga Elkarteak antolatu izan du kontzertu hau udalaren laguntzaz, baina aur-

ten Zumarte musika eskolakoek ere parte hartu dute egitaraua prestatzeko orduan. Izan ere, ekimen hau ez da kontzertuko egunera bakarrik mugatuko, asteburu horretan bertan, maiatzaren 19 eta 20an, Urdiñarben izango baiti-

ra 40-60 usurbildar. Larunbatean Zumarte haur abesbatzak kontzertua eskainiko du Urdiñarbeko elizan eta horrez gain, txistularien laguntzaz Urdiñarbeko kaleak kantuz girotzeko aukera izango dute bi egun horietan.

Maezah: afrikar jatorriko hiru emakume gazteren musika



Togo, Camerun eta Reunión-Martinicatik etorritako 26-28 urteko hiru emakumek osatzen dute Maezah taldea. "A capella" abesten dute, hau da inolako instrumenturik gabe, eta beraien esanetan egiten duten musikak hirurak batzen ditu. "Hirurak ezberdinak gara. Bakoitzak bere eraginen arabera idazten du eta hori da gure musikari kolore ezberdinak ematen dizkiona. Maezah mes-

tizoa da eta funk-a, rap-a, jazz-a eta afro-a lantzen ditugu". Duela urtebete hasi ziren hirurak batera abesten eta aurrera begira ikuskizun bat sortzen ari dira. "Elkar ezagutu bezain laster abestiak konposatzen hasi ginen eta aurrerantzean ere horretan jarraitzeko asmoa dugu. Izan ere, Afrika eta Amerikako herri beltzaren historia agertuko lukeen ikuskizun baten proiektua dugu eskuartean".

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Kalkos kopisteria

- ✎ Fotokopiak
- ✎ Fotokopiak koloretan
- ✎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✎ Planoen kopiak (AO arte)
- ✎ Ordenadoreko lanak
- ✎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburuak)
- ✎ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Santixabeletako danborrada

Santixabelak gero eta gertuago daude. Jai batzordeko kideak festetako egitaraua zehazten ari dira dagoeneko eta danborrada antolatzen dutenek bertan parte hartzeko deialdia egin dute. Bai helduek eta bai haurrek maiatzaren 2tik 6ra Nieves-en kioskoan eman beharko dute izena. Helden danborrada, ohiturari jarraituz, Santixabel bezperan izango da. Bertan 16 urtetik gorako usurbildarrek parte hartu dezakete eta entsaioen erdietara agertu beharko dute. Lehen entsaioa



Urteetako ohiturari jarraituz maiatzeko lehenengo igandean Andatza eguna ospatuko da. Urtean behin bada ere mendizale bihurtzen dira herritar asko eta 562 metroko altuera duen mendi honetara igotzeko prest egoten dira. Aurtan ere ez da salda bero, txorizo eta haragi egosirik faltako. Hala ere, jende askok aukeraketa bat egin beharko du, hauteskundeak direla eta maiatzaren 7ra aurreratu baitzuten Senperen egiten den Herri Urrats festa.

maiatzaren 11n izango da arratsaldeko 20.00etan. Haurrak, berriz, uztailaren 3an danbor eta guzti aterako dira kalera. Horretarako, ordea, entsaiatu egin behar. 3 eta 15 urte bitarteko ume usurbildarrek izango dute egun horretan danborra jotzeko aukera. Hala ere, izena eman eta hiru entsaio baino gehiagotan huts eginez gero ez dute danborradan ateratzeko aukerarik izango. Lehen entsaioa maiatzaren 12an izango da eguerdiko 11.30etan. Bi entsaiok goiko Udarregi ikastolan (Agerialden) izango dira.



Usurbilen ere San Isidro eguna, nekazarien eguna, ospatuko da maiatzaren 15ean. Iaz hasitako bideari heldu eta egitarau xume bat osatu dute Nekazaritza Aholku Batzordeko kideek. Goizeko 11.30etatik aurrera Agitetarrak arituko dira aizkoran. Ondoren zaldi-dema izango da, Egioleta eta Arratzaingo zaldiak izango baitira aurrez aurre. Tartean, gainera, herriko bertsolarien bertsoak entzuteko aukera izango dute herriko frontoira gerturatzen diren guztiek.



Haimar Zubeldia Frantziako Tourrean ikusi ahal izango dugu aurtan. Izan ere, Euskaltel-Euskadi izan da txirindularitza proba garrantzitsuenean parte hartzeko gonbidapena jaso duen bost taldeetako bat. Iazko emaitzak ikusita Haimar izango da taldeko liderretako bat, baina horretarako denboraldi hasieran izan zuen erorikoa gainditu beharko du. Hala ere, argia ikusten hasia da, azken astean Errioxako itzulian parte hartu baitu usurbildarrak.

**GALARRA
GARRAIO**

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Maiatzaren 13ko hauteskundeetan 4.502 herritar izango du boto eskubidea


Apirilaren 27an hasi zen Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina, duela hilabete asko alderdi politikoek hasitako lehiaren azken txanpa, alegia. Egunero komunikabideetan batzuen eta besteen mezu eta leloak entzuten ari garen egunotan eta herrian alderdi politiko ezberdinetako lehendakaritzarako hautagaien aurpegiak nonahi ikus daitezkeen une honetan, herritarrok, ordea, nora joan behar dugu botoa ematera?

Dena prest dago hainbeste ohiartzun eta ika-mika eragiten ari den maiatzaren 13ko hauteskunde zitarako. Alderdi politikoak kanpainen bete-betean ditugu eta hauteskunde mahaiak osatuko dituzten pertsonen zozketa ere egina dago jada.

**Goizeko 9.00etatik
arratsaldeko 20.00ak arte**

Euskal Autonomi Erkidegoko hauteskunde hauetan ere, azkenengotan bezala, Usurbil hiru sekziotan banatuta egongo da:

Lehenengo eta bigarren sekzioak udaletxean egongo dira. Lehenengo sekzioan Kaleberrikoek eman beharko dute botoa. Bi mahai egongo dira hauentzat; A mahaira A-K tartean abizena duten herrita-



rrek joan beharko dute eta B mahaira, aldiz, L-Z bitartekoek.

Santuenea, Urdaiaga, Txo-koalde eta Aginagako biztanleek, aldiz, bigarren sekziorako joan beharko dute botoa ematera. Aipatu sekzioa ere Udaletxean bertan egongo da. Hemen ere bi mahai egongo dira. A mahaira A-J abizenekoek joan beharko dute. Eta B mahaira K-Z bitartekoek.

Azkenik, hirugarren sekzioan bi lekutan egongo dira hauteskunde mahaiak. A eta B mahaiak Udaregi Zaharrean egongo dira eta bertara Kalezarren, Muna Lurra, Galtzara-gaina, Bizkarra eta Puntapax kaleetan bizi direnak joan beharko dute botoa ematera.

C mahaiak, osterak, Lanbide Eskolan egongo da Txikiardi eta Zubietakoentzat.

Hauteskunde mahaiak goizeko 9.00etatik arratsaldeko 20.00ak arte egongo dira zabalik.

**4.502 usurbildarrek dute
botoa emateko eskubidea**

Maiatzaren 13ko hauteskundeetan herriko hauteslegoa 4.502koa izango da. Hauetatik 41 herritar atzerrian edota herritik kanpora bizi dira egun. 1998ko urriaren 25ean burututako Eusko Legebiltzarrerako eta Foru Aldundietako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan 4.420 usurbildarrek izan zuten botoa emateko eskubidea. Beraz, aurten 82 botoemaile gehiago izango dira. Urtetik urtera goruntz doa goruntz doa hauteslegoaren kopurua.

Agurtzane Solaberrieta

ITURGINTZA

JOSEBA
ARANGUREN

Tel.: 943 36 43 64

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enka. 6 Tel.: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05



zerdi patsetan



Xabier Mikel Errekondok Europako kopa irabazi du bigarren aldiz

Xabier Mikel Errekondo usurbildarrak eskubaloiko Europako Kopa irabazi zuen Portland San Antonio Iruñeako taldearekin batera pasa den apirilaren 28an. Joaneko partiduan sei goletako errenta lortu ondoren Bartzelonako Palau Blau Grana kantxan jokatu zuten itzuliko partidua, eta 25-23 galdu bazuten ere eskubaloian taldeka lortu daitekeen koparik garrantzitsuena etxeratzea lortu zuten Xabier Mikel eta bere kideek.

Partiduko azken minutuetan asko sufritu zuen Portlandek. Izan ere, partidua bukatzeko bi minutu falta zirenean 25-20koa baitzen emaitza. Xabier Mikelek berak ere hori baieztatu zuen partidua amaitzeraino. "Asko sufritu dugu, baina nahi

duguna lortzeko sufritu beharra dago. Merezitako saria eramango dugu etxera eta hori niretzat sekulakoa da".

Et da hau usurbildarrak lortzen duen lehen Europako Kopa, 1994. urtean Teka taldearekin lortu baitzuen eskubaloian hain preziatua den txapelketa hau. Hala ere, txalotzekoa da usurbildarra Iruñe-



ko taldean egiten ari den lana. 37 urte betetzera dijoanean taldeko bizkarrezurra osatzen duen jokalarietako bat da eta denboraldi osoan eta batez ere finaleko azken partiduan maila oso ona ematen ari da.

Xabier Mikel Errekondo Usurbil K.E.an hasi zen eskubaloian jokatzeko 1983an. Hiru urte egin zituen herriko taldean eta Oarson bi urte egon ondoren Elgorriaga Bidasoan egin zuen debuta Ohorezko mailan. Irungo taldearekin jokatu zuen sei denboralditan eta ondoren Teka eta Ciudad Real taldeetan ere ibilia da. Iruñeako taldera 1997an iritsi zen eta iaz Europa mailako Errekopa txapelketa eskuratu bazuten aurretik txapelketarik garrantzitsuenarekin itzuli dira etxera. Zorionak Xabier Mikel!



Herri arteko pelota txapelketa hasi da

Pasa den apirilaren 27an hasi zen Gipuzkoako Herri Arteko pelota txapelketa. Azken urteetako partehartzaile kopuruarekin alderatuz, txapelketa hau jokatu duten herriak gutxiago dira, baina Usurbil tartean izango da

beste behin ere. Hasierako kanporaketan bi aurkari izango dituzte usurbildarrek: Lizartza eta Aretxabaleta. Hala ere, herriko pelotariak ez zuten ondo hasi txapelketa. Lizartzan jokatu zuten bertako pelotariaren aurka eta 2-1 galdu zuten.

Jon Irazustabarrena eta Ibai Orena kadeteek ezin izan zuten emaitza onik lortu, 22-7 galdu baitzuten. **Asier Portu eta Asier Arruti** jubenilek esku-

ratu zuten garaipen bakarra 22-10eko emaitza lortu ondoren. Azkenik, afizionatu mailan **Enrike Huizi eta Javi Sanchok** 22-7 galdu zuten. Hala ere txapelketa hasi besterik ez da egin. Lizartza izango dute aurkari maiatzaren 4an herriko frontoian eta ondoren Aretxabaletaren aurka bi aldiz jokatu beharko dute: aurrena Aretxabaletan eta gero herriko frontoian.



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Udaberriko moda berria zuretzat!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

“Plis Plas txalo ta jolas” haurrentzako egitaraua hasteko prest

Azken urteetako bideari jarraituz, aurten ere “Plis plas txalo ta jolas” egitaraua martxan jarri dugu. Etxeko txikiak goxatu asmoz zuen auzoan edo ingurukoetan izango da zer ikusi eta zer entzuna. Maiatza eta ekaina bitartean antzerkia, txontxongiloak, jokuak, ipuin kontalariak,... denetarik ikusteko aukera zabala izango dute herriko haurrek. Gainera, txokolate eta bizkotxo goxo-goxoak jateko parada ere.

Aurtengo azkenengo ekitaldia ere, iaz bezala, herriko pilotalekuan izan ordez, Kalezarren egingo da ekainaren 17an. Izan ere, igande honetan

San Juanetako jaietako egitarauan umeen eguna ospatzen baita. Hori dela eta, guztion artean txikieneztat egun atsegin eta berezi bat antolatatu asmoz, aurten ere Kalezarren egitea erabaki da. Gainera, ez nolanhiko ekitaldia! Izan ere, egun horretan **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazo ezagunak egongo baitira haur eta gurasoen parre-algarak eragiten.

Auzoetako jai batzordeak, Zubietako, Aginagako eta San Estabango eskolak, Euskal Txokoak, *Noaua!* Kultur Elkarte eta Udala izan dira egitasmo honen eragile.

2001EKO PLIS PLAS TXALO TA JOLAS EGITARAUA



ZUBIETA	MAIATZAK 12 arratsaldeko 5etan	KIXKA taldearen BOLALUMA ikuskizuna <i>Txotxongiloak</i>
AGINAGA	MAIATZAK 19 arratsaldeko 5etan	IPUIN ANTZEZTUAK BERBARO Elkarte
SANTUENEA	MAIATZAK 27 arratsaldeko 5etan	TELMAH taldearen “Lehoi baten bila” antzerkia
KALEZAR	EKAINAK 2 arratsaldeko 5etan	Jokuak eta kontu kontalariak. AUSKALO taldea
KALEZAR	EKAINAK 17 arratsaldeko 5etan	TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX

Produktu ugari eta ikusmira haundia izan arren, erlea izan zen protagonista nagusia

Erleak urtean zehar egiten duen lana agerian gelditu zen pasa den apirilaren 28an ospatu zen III. Erle Egunean. Langile fin honi omenalditxi bat egin asmoz jende ugari hurbildu zen herriko pelotalekura nahiz dema plazara. Erletik eratorritako produktu ugari ikusi eta erosteko aukera izan zen bertan. Izan ere, ukenduak, eztiak, eztiz gozaturako ogia, produktu

kosmetikoak, forma ezberdina emandako argizaria... denetik ikusi zitekeen dema plazan zeuden 30 postuetan.

Hala ere, I. Euskal Herriko Ezti Lehiaketan epaimahaia osatzen zutenek ere ikusmira haundia piztu zuen, ezti onenak zeintzuk ziren aukeratu zituztenen artean aurpegi ezagun ugari baitzeuden. Hori bai, ekitaldiaren amaieran **Ignazio Guridi eta Julian**

Urkiola bihurtu ziren protagonista nagusiak. Lehenengoak Gipuzkoako ezti onenaren eta Euskal Herriko lorebarkarreko ezti onenaren sariak etxeratu zituen. Euskal Herriko lore anitzeko eztiirik onena izan zen, berriz, bigarrenarena. Bi eztingile hauen saritutako bi potoak **Karlos Argiñano** sukaldari famatuak eskuratu zituen 210.000 pezetaren truke



Iaz baino jende gehiago ibili zen III. Erle Egunean. Dema plazan zeuden produktuek ikusmira ugari sortu zuten.



Ezti, gozokintzako produktuak, argizaria, sendabelarrak... nahi zen guztia ikusi eta erosi zitekeen 30 postu ingurutan.



Herriko txikienek globoan ibiltzeko aukera ere izan zuten kiroldegi aurrean.



Zenbait erle ere agertu zen beraien egindako omenaldi honetara. Han egon ziren frontoian mugitu ere egin gabe.



Argiñano, Berasategi, Andoni Aizpuru... pertsonaia famatu ugari ikusi genituen eztiirik onenak aukeratu nahian.



Julian Urkiola eta Ignazio Guridiren eztiak izan ziren Euskal Herriko onenak.

Zendoia enea

Taberna


- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60



Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

3 er diyo?



Joseba Tapia

Lasarten jaioa da, baina usurbildarra sentitzen da

Trikitilaria edo soinujotzailea

Zer dira promotoreak? zeri deitzen diogu promotore?

Musika munduan jakina dugu hori, kontzertu eta emanaldiak antolatzen dituen pertsonari deitzen diogu promotore. Normalean, horretara dedikatzen da eta bulego bat izan oi du. Bertan, kontzertu horiek gestionatu eta bideratzeko langileak ere eduki ditzake.

Beraz, honenbestean pentsa genezakeen promotore musikal hauek figura interesgarri, ezinbesteko direla musika promozionatzeko eta batez ere, musikariaren bizi-iraupenerako. Ba ez!

Norbaitek esango dit jeneralizatea arriskutsua dela, baina ni ausartuko nintzateke horretara; Euskal Herrian, kazetariekin gertatzen den bezala, hots, gutxi batzuk kenduta gehienak kaltegarriak dira.

Jende bizkor asko dago munduan usaia duena negozio usaia sumatzeko. Erdiak ilegalak dira eta ez direnen artean gutxi batzuk dira legalak. Tratu merkeak egiten dituzte musikariek; batzuek asko

balio ez dutelako eta beste batzuk enteratzen ez direlako promotore hauek laster osatzen dituzte beren listak. Bizkaian daude hedatuak promotore hauek. Beraiek erdaldun izan arren izen euskaldun mitiko bat jartzen diete beren negozioari: Lur-ama, unai, eguzki-lore edo sorgin-txulo, bezalakoak.

Horrela, nonbait errazago zaie euskaldunekin tratua, batez ere udaletxeetako kulturako kontzejalekin. Diru kopuru polit baten truke festa guziak antolatzen dizkiete eta erantzukizunetatik at, zinegotzi hauek libre gelditzen dira festa garaian oporretara joateko, adibidez.

Gipuzkoako talde garrantzitsu eta modako direla esanez herriko festa egitaraua betetzen da. Baina gero, gazte jendea ez da herrian gelditzen. Normala!

Gazteei oztopoak jartzen zaizkie festak antolatzeko. Ez du gizarteak, nonbait, dibertitzen direnean sortzen duten zarata maite, Maite, Maite ez ni utzi hemen kaiean, Maite, Maite zu nere bihotzean.



N • U

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

**Zure publizitatea
hemen jarri nahi
baduzu, deitu
943 36 03 21 telefonora!**

IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

Lehiaketa



Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean
Patri tabernan bi
personentzat afaria
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia

Erantzuna



Irabazlea

Jose Gurutz Bengoetxea

Saria

Bordatxo tabernan
bi personentzako
afaria

LITERATURAREN TXOKOA



"Korapiloak"
Jasone Osoro
Bilduma: Literatura 208 / Orriak: 136

Hamazazpi ipuin eta beste horrenbeste poemaz osatutako liburua da *Korapiloak*; bertako pertsonaiak ere istorio batetik bestera igarotzen dira, haien arteko korapiloak sortuz eta kontakizuna aberastuz, eta irakurlearen esku geratuko da, azkenik, protagonisten arteko loturak argitzea eta maifasunaren puzzlea piezaz pieza osatzea. Egunerokotasun eta absurduren artean mugitzen da Jasone Osoro liburu berri honetan, izenik ez duen hiri bateko jende anonimoaren geletan sartuz eta haien sekretuak argituz, irakurlearen begi harrirituen aurrean. Ispiluaren bestaldean gu geu gaude, ordea, norberaren bizitza ere korapiloz betetako soka luzea baita: askatzen den korapilo bakoitzeko biluziagotzat geratzen gara, baina hurbilago dugu, era berean, desira ezkutuen ametsa.



Zer da lanbidez Jasone Osoro?

Asmatzaileen artean liburu honen bi ale zozketatuko ditugu. Erantzunak Noaua! Kultur Elkartera bidali edo bertako postontzian utzi ditzazkeue.

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

MAIATZAK 6 igandea

● Andatza eguna.

Goizean zehar **salda beroa, txorizoa eta haragi egosia** banatuko da Andatzako txabolari. 12.00etan **meza** izango da eta ondoren **trikitilariak**.

MAIATZAK 7 astelehena

- **Odol emanaldia** herriko anbulategian arratsaldeko 19.00etatik 21.30etara.
- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

MAIATZAK 8 asteartea

- **Santixabel jai batzordearen bilera** udaletxean arratsaldeko 20.30etan.

MAIATZAK 12 larunbata

- Plis plas txalo ta jolas egitarauaren barnean **Kixka taldearen "Bolaluma" ikuskizuna (txotxongilok)** Zubietako eskola txi-

kian arratsaldeko 17.00etan hasita. Ondoren **txokolatada**.

MAIATZAK 14 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

MAIATZAK 15 asteartea

- **San Isidro eguna, nekazarien eguna.** Goizeko 11.30etan Agitetarrak ari tuko dira aizkoran herriko frontoian eta ondoren Egioleta eta Arratzaingo zaldien arteko zaldidema izango da.

MAIATZAK 18 ostirala

- Aitzaga elkarteak eta Zumarte musika eskolak udalaren laguntzaz antolatutako **kontzertua** gaueko 22.00etan hasita Oiaro kiroldegian: **Zumarte abesbatza, Tolosako orkestra eta Maezah hirukotea.** Sarrera: 500 pezeta.

OHARRAK

- ✍ **Neska bat behar da etxekolanak egiteko eta haurrak zaintzeko.** Interesatuak deitu 943 37 29 38 telefonora (gauzez).
- ✍ **Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko.** Astebete goizez eta hurrengo arratsaldez. Telf. 679258721.
- ✍ **Mahaspildegi elkartearen bazkide postua** salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✍ **Chow chow arrazako txakurrak salgai.** Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✍ Banaketarako furgoneta isoterma bat aukeran. Lanerako aukerarekin ere saltzen da. Interesatuak deitu 606060322 telefonora.
- ✍ Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 630647119 telefonora (Iñaki).

XXV. Santixabel bertsopaper lehiaketa

GAIA:

"Herriko kontu zaharrak bertsotan"

1- Lehiaketa honetan parte hartzeko Usurbilgoa edo usurbildarra izan behar da.
2- Lanak, 2001eko ekainaren 22a baino lehen honako helbide honetan utzi: Usurbilgo Udala. (XXV. Bertsopaper lehiaketa) Joxe Martin Enparantza. Usurbil 20170
3- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

4- Sariak honako hauek izango dira:
5- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10.
6- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izen goitiz, Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak bidali.

Goitibera santixabeletan

Aurtengo Santixabel jaietan goitibera jeitsiera izango da Gazte egunean, uztailaren 3an.

Sariak:

1. 15.000 pezeta eta bi botela txanpan.
2. 10.000 pezeta.

Hasi, beraz, zuen goitiberak prestatzen!!

Aizpurua



Zure mahaiak ondo hornitu nahi baduzu gurean duzu aukera!

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25
Telf: 943 36 12 20

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALFA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK,
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALFAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAUAK
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENZAT, TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK, EGUNKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LEKUA REKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAUAK.
SARRERAK: 500.000 pezetarik, HILEKOAK: 15.000 pzt,

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA




Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua



TXIMINIA ALTZARIAK



Poligono Osinalde
USURBIL (Gipuzkoa)
Tfn.: 943 37 09 66 Fax: 943 37 29 32

ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal
herria



BOZKATU

EUSKAL HERRIA
a u r r e r a



Euskal Herritarrok

BOZKATU!

GUK BADUGU PROPOSAMENIK.
Euskal Herrian bakea eta subira-
notasuna lortzeko mahai gainean
jarri den proposamen bakarra:
**Burujabetzarako Hitzar-
men Nazionala.**

**ARRAZOI ASKO
DAUDE MAIA-
TZAREN 13an**

Maiazaren 13an NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA!